

Douglassen oparia

WILLIAM A. DOUGLASSEN LIBURUTEGIA. 6.000 liburutik goiti Nafarroako Unibertsitate Publikoaren esku utzi ditu Nevadako Euskal Ikasketen Zentroko antropologo ezagunak

EDURNE ELIZONDO - IRUÑEA

Nafarroarekin duen zorra kitatu. Hori egin nahi izan du William A. Douglass irakasle eta antropologo estatubatuarra. Eta lortzeko, bere liburutegi osoa NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoari ematea erabaki du. Bere ondarea Nafarroako erakundearen esku utzi. Antropologiaren arloko 6.000 liburutik goiti ditu Douglasssek, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzitakoak.

Berriki Iruñean egon da Douglass, eta NUPeko errektore Pedro Burilloarekin bilera egin du. Elkarri bostekoa emanez ontzat eman dute biek AEB Ameriketako Estatu Batuetako irakaslearen oparia.

Douglass antropologoa Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko irakaslea da, Renon. Nafarroarekin duen zorra, irakaslearen erranetan, «pertsonala eta profesionala» da. 1963. urtetik du harremana Douglasssek Nafarroarekin eta nafarrekin. Urte hartan, antropologiaren esparruan egiten ari zen ikerketa lana osatzeko, Etxalarren egon zen irakaslea. Urtebete eman zuen herri horretako baserri batean. Han bizi izan zen, eta han egin zuen lan.

Etxalaratik Aulestira abiatu zen antropologoa gero, Bizkaira. *Herriotza Aulestin* izeneko liburua idatzi zuen herri hartan, eta, ondoren, baserrien husteari buruzko beste ikerketa lan bat. Nafarroako eta Bizkaiko errealtateak islatu zituen liburu horretan. Chicagoko Unibertsitatean Antropologian doktore bilakatzeko egin zuen tesia osatzeko ardatza



PEDRO BURILLO errektorea eta William A. Douglass irakaslea, elkarri bostekoa ematen. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

liburu hori izan zuen Douglasssek.

Euskaldunen migrazioa aztertu duen egilea

Douglasssek hasi zuen Nevadako Unibertsitatean euskal ikasketen inguruko programa, 1967. urtean. 30 urte luzez izan da irakaslea programa horren koordi-

natzaile. Programa horren barnean, halaber, beste hainbat ekimen bultzatu ditu antropologoak: bilduma bibliografikoa osatzeko ahaleginak egin ditu; ikastaroak antolatu ditu; eta euskal ikasketen inguruko doktore ikasketak prestatu ditu, besteak beste.

Antropologiaren arloko ikerketa lana ez du inoiz bazter utzi

Douglasssek. Bere lan gehienetan euskaldunak hartu ditu ardatz irakasleak. Ikerketa lan oparo horrek emaitza ugari eman ditu, tartean, hogeitik gora libururen argitalpena. Hamaika artikuluren egile da, gainera, Douglass. Euskal Herriko baserritarren eta familiaren inguruan idatzi ditu bere lanak Nevadako irakasleak, besteak beste.

Migrazioaren fenomenoak izan da Douglassen interesa piztu duten beste gaietako bat. 1968. urtean, hain zuzen ere, Jon Bilbao irakaslearekin batera, euskaldunek Amerikarantz egindako migrazioa aztertu zuen antropologoak. *Amerikanuak: Basques in the New World* izeneko argitalpenan agertu zen lan hori, 1975. urtean, Nevadako Unibertsitatearen eskutik, eta aurten berrargitaratu dute.

1979. urtean, berriz, *Beltran, Basque Sheepman of the American West* izeneko obra argitaratu zuen Douglasssek. Nevadako ekialdean bizi izan zen euskal artzain baten biografia jaso zuen antropologoak liburu horretako orrialdeetan. Euskaldunek Australian utzitako aztarnak ere aztertu izan ditu irakasleak. Zehazki, euskaldunek herrialde horretan azukre kanabera moztan egindako lana aztertu du.

Hainbat sari jaso ditu

Idatzi dituen liburu eta artikuluen bidez, eta batez ere Euskal Ikasketen Zentroaren bidez, Euskal Herriari eta euskaldunei buruzko informazioa mundu osoan zabaltzeko nahi izan du Douglasssek. Etxalarren 1963. urtean hasitako harremana ez du inoiz eten irakasleak, eta, Euskal Herrian bertan, egin duen lana eskertu duten hainbat sari jaso du antropologoak.

Euskal Herriko Unibertsitateak, hain zuzen ere, ohorezko doktore izendatu zuen Douglass 1984. urtean. 1988. urtean, berriz, Euskaltzaindiko kide izendatu zuten Nevadako Euskal Ikasketen Zentroko arduraduna. Eusko Jaurlaritzak, halaber, azpimarratu du Douglasssek euskaldunen inguruan egindako lana: 1999. urtean Lagun Onari saria eman zion erakunde horrek irakasleari. Ikertzailearen altxorrik preziatuena NUPeko kideen esku da orain. Jakintzan janzteko.